

018 66 1 00 0 7

FRANKEO ITUNDUA 48 / 27

Guztiontzat

GEUELKARTEAREN BABESAREKIN

Euskal Herriarrol

GASTEIZ



Jose Ibarretxe
karirako Hautagaio

esku dago



AZALEKO ARGAZKIAK: EDORTZA SAN EITIA GATZAGAIN DISEINUA: GATZAGAIN

Zorionak, Gesaltza

TUPI OHPAETZA / OBU ELKARTEKO KIDEA

Eguraldia oso lagun, zoragarria iruditu zitzaidan atzo Gesaltzan ospatu zen 3. Añana Euskaraz. Euskara Añana Mingainean elkarteak egindako lanak, beraz, mila txalo eta laudoro merezi ditu nire aldetik. Añana Euskal Herriko euskaldun gutxien dituen eskualdea bada, eta horrelako festa eguna antolatzeko gai badira, ondo goazen seinale eta euskararen etorkizuna baikortasunez ikusteko arrazoi. Herriko plazan, pilotalekuan zein igerilekuan bazen ederki goatzeko aukera. Eta ikastekorik ere franko. Bestalde, bertsorik gabeko baina bai kantuz eta umorez borobildurikoherrri bertso bazkaria bikaina zinez. Zorionak sukaldariei, horrelako marmitakorik Ondarroan ere kostata dasta baitaiteke. Horri guztiari eranstean badiozu han benetako jende jatorra (izenik ez dut aipatuko, norbait ez ahaztearren) ezagutzeko izan nuen aukera, ba zer gehiago eska daiteke?

Guztiarekin ere, dena goraipamen hutsean gera ez dadin, bainatxo bat ipiniko dut. Gasteiztik bakarrik joan nintzen Gesaltzara. Eta ez naiz damu. Bakarrik joateak bere alde onak dituelakotan nago, txarrak ere izango dituen bealaxe. Alde on bat da dagoenaz ohartzeko egokiera hobea duzula, (ar)taldean joanda ez bezala. Herriko kale estu eta aldapatsuetatik ibiltzea merezi zuen, dudarik gabe. Bestalde, bazen txartelen bidezko informazio ugari eta interesgarria, beste plan batean joanda ziurrenik irakurriko ez nuena. Berbarako, plazako arkupeetan bazen Arabako euskal idazleei eta euskarak azken

mendeetan nozitu jazarpenari buruzko erakusketa jakingarri bat, baina oso jende gutxi ikusi nuen haren inguruan. Irakurtzea nekagarria, nonbait.

Eta beste kontutxo bat. Zer litzateke Gesaltza gatzik gabe? Bazen antolatua ibilbide didaktiko bat gatzagen inguruan, jakingarri bezain osasuntsua. Baliteke ni herrira iritsi aurretik jende mordo batek egin izana ibilbide hori, baina nik ikusitakoak ez dit hori pentsatzeko biderik eskaintzen. Nik behinik behin erabateko bakartasunean egin nuen bide osoa (aitortu ere egiten dut nik aukeratu ordua ez zela egokiena, hain justu eguzkiak gehien berotzen zueneko). Labur beharrez, bi gauzatxo aipagarri: Iturburua, Gesaltzaraino joanda nahitaez ikusi beharrekoa, eta bidean zehar zeuden informazio-txartelen artean bat, Arreoko lakuaren sorreraren gaineko elezaharra kontatzen zuena. Polit-polita. Baina ez espero nik kontatzea. Badakiue non den...

Bueno, uste dut ulertuko zitzaidala zer esan nahi nuen honekin guztiarekin. Hots, ez dut pentsatzen gorago esandakoagatik atzokoa ahalgingarri denik, ez hurrik eman ere. Horrelakoeatn festa da nagusi, eta ondo deritzot. Baina ahalegin handitxoagoa eskatzen digun kulturari ere lekua egin beharko genioke. Eta larregi luzatzen ari naizenez, berriro Gesaltzari bihotzetiko zorionak eman eta hementxe jarriko dut azken puntua.

Sen gasteiz berrin, kolore guztiak.

Naturaren isladak



Urrian gaude.
Euskal Herriko zenbait
lekuetan oreinarren orroa
entzun ahal dugu. Gorbeia
aldean adibidez.

70. ZENBAKIA. 1.998KO URRIA.

GEU GASLEIZ, Gasteizko Euskaldunen hilabetelearia

ERREDAKZIOA:
Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:
Estibko Eneñas Glez, de Zarate.

ERREDAKZIOBURUA:
Asier Dz. de Karloa.

ERREDAKZIOA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Paut Saez de Euruaga, Itziar Urtiarde.

ARGAZTILAI:
Eleria Sanz.

MAKETA:
Galzapain Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 15 46

INTEGRATIA:
Alex Badillo.

KOMIKIA:
Itziar Sarasola

NATURAREN ISLADAI:
Itziar Zorrabain.

KOLABORATZAILEAK:
Ainhara Zuazabaita, Euzko Alderdi Jeltzalea, Euskal Herritarrok, Eusko Alkartasuna, Itziar Kostresana.

PUBLIZITATEA:
Karlus Edez. de Belenjo.

BASAFETA ARDUEADUNA:
Txipi Ormaechea.

INPEIMATZEGIA:
Gorku Coop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE FOTOKUA:
2.500

LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Franko Itundua: 48/27 zenb.

ALDIZKALIAU PAPER
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasleiz hilabetelearia
ez du bere gain hartzen
bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Alfonso Sastre:
Egunkaria itxi ondorengo orduetan erreflexu azkarra izan zuten Egin-eko arduradunek.

ELKARRIZKETA

aurkibidea

LITERATURA

Txabi Arnal Gil eta euskaraz ez zekien ardi nafarra



irritziak

- 26 Euzko Alderdi Jeltzalea**
Euskadi aberria da.
- 29 Euskal Herritarrok**
Zer da Euskal Herritarrok.
- 30 Eusko Alkartasuna**
III. milurtekoaren aldeko apostua.

laburrak

- 7 Euskara**
Etorkizuneko kazetariontzat.
- 10 Besteak**
Bionekazaritza
- 11 Besteak**
Alderdi eguna 98.

elkarrizketak

- 13 Alfonso Sastre**
Idazle, pentsalaria eta *Euskadi infor-*
macion egunkariko sortzailea.
- 20 Txabi Arnal Gil**
Bi liburu berri argitaratu ditu.

erreportaia

- 16 Gizartea**
Gizarte Etxeak, guztioi irekiak.

kultura

- 20 Literatura**
Aukerazko Liburu eta Disko Azoka.
Zortzi libururen kritikak.

22 Musika

Zazpi libururen kritikak.
Gureak...

25 Agenda

Urriako kultur ekitaldien zerrenda.

ohikoak

- 4 Santa Barbara azoka**
Euskararen termometroa
W W W
- 12 Geurekin mendira**
- 28 Komikia**

Aldizkaria argitaratu egin da hurrez hurrez eta ez da errespetatzen. Berki eragotzerik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



ISABEL ORTIZ
ETXETAZAR/LEZAMA

1.- Bi aldeak defenditzen ditut nik. Bai batzuek zein besteek nonbaitetik joan behar dutela garbi dago.

2.- Ez dago bide-gorriak kendu beharrik, bizikletazaleek ere bere eskubidea baitute. Irtenbide bat bide zabalagoak egitea litzateke.

- 1.- Gizartea hauteskondeek ekar dezaketenerako mentalizatua dagoela uste al duzu?
- 2.- Boto ematean, jendeak garbi izatean al du edo azken orduko erabakia izaten da?

boto artean solasean

Euskal herriak bizi duen egoera berria kontuan harturik, badakigu Euskal Autonomi Elkarterako hauteskondeek garrantzia berezia hartu dutela azkenengo deialdi honetan. Bake prozesuan hasiak garaia kontuan izanik, hauteskunde hauentzako partehartzailerik gehiago espero dira azkenengo urteotan eman den abstentzioari amaiera emango zaion esperantzaz. Horrexegatik kalera irten ginen gasteiztarrok honen ingurua dugun jarrera jakin nahian. Jendeak politikaz hitz egin nahi ez duen arren, gutxi batzuk animatu ziren eta ondoko galdera hauei segituan dituzuen erantzunak luzatu zizkiguten:



SANDRA DE LOS OJOS
MORRIS/LEZAMA

1.- Kaskoa erabiliz gero bizikletak errepidetik ibiltzeko eskubidea dutela iruditzen zait, motorrik gabeko motorrak baitira.

2.- Bide-gorriak eraikitzea irtenbide bat litzateke, baina baita kaskoarekin errepidetik ibiltzea ere.



JAIME GIRALDO
KOPEY/LEZAMA

1.- Oinezkoa eta ibilgailuaren gidaria errespetatu behar dira. Bizikletazale asko azkarregi joaten dira eta hau arriskua bilakatzen da maiz.

2.- Bide-gorri gehiago jarriko balira, irtenbide baten aurrean geundeko.



REGOÑA ALONSO
LEZAMA/LEZAMA

1.- Bide-gorriak jartzea ondo iruditzen zait. Zenbat eta gehiago jarri, orduan eta hobeto.

2.- Gaur egun autoen kopurua oso handia denez, bizikletazalea espaloitik joatea onartzen dut, beti ere kontu handiz bada.



VICENTE PEDROSA
ZABALGARZA

1.- Gehingoaren iritzian bizikletan ibiltzen direnak oztopo direla argi dago, arazoa baitira errepidean eta espaloian.

2.- Bide-gorriak jartzea litzateke hobereana, bizikletazaleek ere eskubideak baituzte.



HERENIA PINEDO
MORRIS/LEZAMA

1.- Nik uste dut edozein lekutatik joaten bagara, beti kexaren bat jasoko dugula. Edozein tokitan oztopo garaia dirudi.

2.- Errepidetik joatea oso arriskutsua denez, bide-gorri gehiago eraikitzeari deritzot egokien.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

CD-Rom



IZENBURUA: LINGUA+

ARGITALETXEA: Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saia

BERTSIOAK:

PC (Windows 3.1 sistema eragilea)

MACINTOSH (7.0 sistema eragilea)

Kalean da hizkuntzen inguruko Lingua+ izeneko CD-ROM-a. Europako Batzordearen laguntzaz egin da eta katalanari, galegoari, alsazierari eta euskarari buruzko jakingarriak daude bilduta, laburki eta erraz jabetzeko moduan, aditu ez direnentzat pentsatua, batez ere.

Hizkuntza bakoitzari buruzko informazioa antolatuzeko orduan lau atal nagusi egin dira: hizkuntzaren historia, egoera juridikoa, komunitate bakoitzaren hizkuntza-politika eta egoera soziolinguistikoa. Euskal Herrian, oraingoz, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako informatika-geletara banatuko da ikasleek informatikan lehen urratsak ematen dituzten heinean euskararen eta Europako hainbat hizkuntzaren berri izan dezaten.

postariak-ekarrita

inoren gustukoak ez diren neurriak

Gasteizen, 1998ko irailaren 11-an

1998ko irailaren 8an udalarekin kontserjea dela eta sortutako arazoa izanik, Tokieder-eko Ikastola Kontseiluak premiazko bilkuran elkartu ondoren, honako akordioak ezagutarazten ditu:

1.- 17 urtetan lanpostu horretan jardun izan duen pertsona hori elebiduna zela, honako funtzioak betetzen zituelarik:

- a) 5,5 ordu (ikasleen ordutegi barruan) kontserje lanetan (telefonoa, fotokopiak, ikasle eta irakasleei oharrak pasa, materiala,...), ikasle guztiekin harreman sendoak izanik.
- b) 2,5 ordu garbiketa-lanetan.

2.- Udalak bidalitako pertsonak garbitasun lanak soilik betetzera etorri dela ikasleen ordutegitik kanpo; horretarako beste hiru langile daudelarik. Beraz, ikasleen ordutegian ez luke ezer egingo, aurreko langilearen lanak betetzeko beharrezkoa duen gaitasun ofizialik ez baitu.

3.- Lehen aipatutako funtzioak betetzeko, Ikastolako Hizkuntza eta Hezkuntza-Proiektuok jasotzen duten bezala, ikaslearekin harreman zuzenak mantentzen dituzten langile guztiak euskaraz komunikatzeko gai izan behar dute.

4.- Udala aurreko baldintza guztiez ekainean jakinarekin gainean zegoela, bai idatziz bai ahoz adierazi zitzaioelako. Udalak hilabete

horretan bertan baldintza horiek aintzat hartuko zirela jakinarazi zuen idatziz (1998ko ekainaren 19an). 98-99 ikasturte hasieran, irailaren 1-ean, bidalitako pertsonak plazarako behar ziren derrigorrezko baldintzak ez zituen betetzen.

5.- Udalak beregain (ez irakasleen kontratazio funtzioak) hartzeak ez diola kalterik egin behar ikastolan pertsona horrek ematen zuen zerbitzuari.

6.- Lanposturako eskatutako baldintzek aldatzekaren bat derrigoritzen bazuten, mantentze-menduko lan zerrendetan ikasturtea hasi baino lehen kontuan eduki behar zutela.

7.- Lehen unetik, irailaren 1-etik, udalarekin gai honi irtenbidea ematen saiatu da Ikastola. Gurasoak eta irakasleen kezak azalduz, hitzartutakoan ez diotela erantzun egokirik eman ikustaraziz.

Hamaika egunotan Udaletxeko inor ez da ikastolarekin harremanetan jarri gai hau konpontzeko. Gaur egun ez da Udaletxetik komunikazio zuzenik jaso. Erantzun bakarra garbitasunerako langile guztiak kentzea izan da.

8.- Eskaera eta deiei erantzuna eman ez zaienez, ikasleak etortzearekin batera gustukoak ez diren neurriak hartzera behartuta egon da Ikastola.

TOKIEDER IKASTOLAKO KONTSEILUA



Bonardi'98
bilduma, eusturak 3.150 pta.n

Orain,
milaka sariren zozketan
parte hartu ahal izango duzu Bonardi bildumako edozein
montura erosteagatik



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a



Bezeroaren arretarako telefonoa: 900 34 35 36
<http://www.multiopticas.es>

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

geurekin mendira

1995-1998 bitarteko zifrak

Ondoko irudian laburbiltzen ditugu GEUrekin Mendira Taldea abian jarri zenetik izan dituen lau urteetako zifrak. Zenbakiak sarri askotan hotzak gertatzen badira ere, informazio interesgarria edota bitxia gordetzen dute euren baitan; ikus dezagun mendizale euskaldunek suspertzen dugun jarduera honen inguruko hainbat bitxitasun.


Urte bakoitzari dagokion ibiltarien batez-beste kopuruak egonkortasuna lortu du: hasierako urtean (1995ean) batez-beste 27ra iristen zen bitartean, hurrengoan, berriz, 17ra jeisten zen; halere, zifrarik altuena 1997/98an lortzen zen 28 lagunekin.

Urte bakoitzean hilez-hil izandako gorabehera erreparatuz, bistan dago abiapuntuko urrian urtez-urte gorabehera handiak ditugula (futbolearen bezala, aurreneboraldiaren arabera)

ote?); azaroa eta abendua hile hotzak zaizkigu, bildu garen lagunak kopuruak ez baitute 30era inoiz iritsi; neguan murgildu ahala, aldiz, motorra berotzen zaigu eta ia guztietan zifra horretatik gora bildu gara; martxoan Aste Santuko pasio propioarekin eta apirilean Prontxio Deuna ere oso lagun ez dugunez, azaroa edo abenduari dagozkien zifretara itzuli ohi gara. Azkenik, maiatzako loreak eta ekaineko kalabazek ausartenak bakarrik uzten gaituzte biltzen.

Irtenaldietako ibilbideak ere zerikusi handia omen du, eta irtenaldi guztien artean harrera hoberena lortu zuena 1998ko otsailekoa dugu, Aralar-Txindokin egindakoa, hain zuzen ere. Mendi kontuan ere, izen eta ospe handikoak garaile!

Gasteizko euskaldun batzuek osatzen dugun koadrilatxo hau aurrera doala



urria

Gure artean da jada udazkena eta berarekin batera mendiak dei egin digu. Datorren urriaren 18an ikasturte berriko Geurekin Mendira saileko lehenengo txangoa egingo dugu. Ea animatzen zareten!

Azazeta - San Bittor

Ibilbidea: Azazeta - Itxogana mendia - Idiagana mendia - San Bittor baseliza

eguna urriaren 18an
irteera 9 t'erdietan Txapela tabernan
itzulera arratsaldeko 15:00etan

Kotxez joango gara

GEUrekin Mendira GEU Elkarte eta GEU GASTEIZ

aldizkariaren ekimen bat da

tfnoa: 945 26 67 12 (Begoña)

dirudi eta geure eskuetan dago sendo eta irmo jarraitzea. Abian dugun 1998-1999 denboraldian lagunduko diguzu ibiltari-kopuruak borobiltzen?

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!



Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ



OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑELA
KALEAN

GASTEIZKO



IRUBIDE



RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK



ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA

HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra !

35

adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Bionekazarizer?

Bionekazaritza Elkarte Arabarrak bere lehenengo topagunea burutu zuen Molinilla

Irailaren 26-an, igandea, kontsumitzaile-ekoizle ekologikoen I. Topagunea burutu zen Molinilla herrian, non partehartzaileen kopurua adierazgarria izan zen. Antolatzaileek ihardunaldi honen bidez eskerrak eman nahi zizkieten kontsumitzaile guztiei

ekoizteko modu ekologikoaren bidean parte hartzeagatik.

Eratzaileek esanda, bi urtetan Nekazaritza Ekologikaren Euskal Kontseilua-n izena eman duten ekoizle arabarren kopurua bikoiztu da, eta honekin batera, kontsumoaren maila ere handitu, Gasteizen behintzat. bionekazaritza-koen helburu garrantzitsuenetako bat zera da: erabat ustelduta dagoen nekazal giroa aldatu nekazarien artean bide ekologikoa zabalduz, eta era berean lurrak berreskuratzeko aukera landu. Baina honetarako guztirako ezinbestekoa da produktu ekologikoen kontsumitzaileen kopurua gora doala jakinaraztea.

Ihardunaldian bai kontsumitzaileek zein ekoizleek produktu ekologikoen kalitatea, prezioak, banaketa, ekoizpen-kostuak etab. izan zituzten aztergai. Eta I. Topagune honi behar bezalako amaiera emateko, Molinillako nekazarien esku, bazkari ekologiko batez gozatzeko parada izan zuten bertara hurbildutako orok. Honako hau izan zen eskainitako menua: letxuga, tomatea eta porruak entsaladatan; zerbaren orri-mamiak pla-pla eginda; kalabazin krema; babarrunak (Arabako pinta eta zuriak); lekak patatekin; ogi integrala; eta bukatzeko, arkume ekologikoa berenjenak



eta barazki gehiago hornigai. Dena bai sagardoa, bai BiasterikoUrobi (urtekoa, 1996) zein Oiongo Marqués de Vitoria (ondu, 1995) ardo ekologikoez bustia. Postreetan angurria eta bertako pikua. Kafea eta pasta integralak bukaeran. Eta gainera, euskaraz mintzatzeko aukera ere bazegoen!!!



Gasteizen ere

Urriaren 3an Dendaraba-n Arabako nekazaritza ekologikoen berri eman nahi izan zuen I. Azoka izan genuen gure artean. Honez gain, euren produktuak erosteko aukera ere plazaratu zuten. Arabako nekazaritza ekologikoa oraindik murrizta bada ere, etorkizun handia duela garbi dute nekazari ekologikoei. Araban nekazaritza ekologikoen produktuak ondorengo toki hauetan produzitzen eta lantzen dira: Arkaia (barazkiak),

Molinilla-Lantarón (barazkiak eta zerealak), Oion eta Biasteri (ardoa), Labraza (barazkiak eta fruta), Askartza (barazkiak), Santa Cruz del Fierro (barazkiak eta zerealak), Antoñana (zerealak) eta Gasteizen (ogia eta gozoak). Gasteizen bertan zenbait saltze gune dago produktu hauek guztiak erosi ahal izateko.

Bionekazaritza
La Paloma kalea, 6 behea
01002 Gasteiz
Tel.: 945 26 10 47.

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

J A T E T X E A

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



Hamarnaka mila lagun Salburuan

Agurraren Alderdi Eguna izan zen, baita erreleboarena ere. Futbol partidua bailitzan Jose Antonio Ardanazak zelaia utzi eta Juan Jose Ibarretxe laudiotarrak bere lekua hartu zuen, ikusleen txalo zaparradaren artean. Entrenatzailea ez zen falta (Xabier Arzalluz), ezta beste ekipoetako begiraleak ere (Convergencia i Unio eta Bloque Nacionalista Galego).

Hamarnaka mila lagun jaso zituzten Salburuako zelaiek irailaren 27an Euzko Alderdi Jeltzaleak ospatu zuen Alderdi Egunaren baitan. Kotxe ilara izugarriak, oso urrundik heldutako autobusak eta ETaren su-etena eta Lizarrako akordioa hizpide; horiexek izan ziren EAJren aurtengo egunaren ezaugarri adierazgarrietakoak.



Milaka bisitari bildu zituen Entresieras elkarteak eginiko Arabako babarruna gorriaren egunaren aurtengo aldian.

Hilaren 11n Pobesera hurbildu zirenek eguraldiari muzin egin eta sekulako giroaz gozatu ahal izan zuten.

1 x 2 =
2
2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!

zure aita, ama, anai, arreba, iseba, osaba, lehenagusua, lehenagusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagarreba, amagarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

...EGIN ITZAZU HARPIDEDUN

PASAEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
 Telefonoa _____
 Helbidea _____
 Kodea _____
 Herria _____
 Jaiotze data _____ Lanbidea _____

Urteroko kuota: 1.500 pezeta

Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Entitate: Sukursala K.D. Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
 PEDRO ASUA, 2. BA.
 01008 TFNOA: 22 21 53

**PUBLIZITATERIK MERKEENA
 ETA ERAGINKORRENA**

**GEU
 GASTEIZ**

**PEDRO ASUA, 2. 3A.
 22 21 53**



ARTEPAN

Artisau
 Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
 01005 GASTEIZ

ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10
 Telefonoa: 24 59 33

berri berriena

datoen denborekin bat



HELBIDE BERRIA

geugaste@grn.es

g e u g a s t e i z a l d i z k a r i a



Azaroaren 8an LEGUTION

- TXALAPARTARIAK
- EUSKAL DANTZAK
- BERTSOLARIAK
- LOPI HERRI KIROLAK
- AEK EGUNEKO I.NEKAZAL AZOKA
- GORRITI
- TXARANGAK
- BURUHANDIAK
- ZEA MAYS
- MIKEL TELLERIA
- PIKOR
- eta ZUK ZEUK EGINO DUZUNA!
- GAITARIAK
- TRIKITILARIAK
- ESTROPADAK
- TXISTULARIAK
- NEKAZAL AZOKA
- KARAOKEA
- HERRI BAZKARIA
- ERRALDOIAK
- KALE ANTZERKIA
- NIKO ETXART
- TRIKITIXA KONTRAIRO
- BETAGARRI...
- ZATOZI!!!

dekeguna

geu ere AEKrekin
BAI EUSKARARI!!

Gasteiztik urruti xamar elkartu gara Alfonso Sastre-
rekin. Hondarribian bizi da pentsalari eta idazle hau,
eta laino, euri eta trumoien eraginez ilundutako goiz
batean bildu gara haren etxean, liburu eta argazkiek
estalitako hormen lekukotasun isilaren konplizitatean.
Euskal Herrian azken urtean bizi izanda-
ko egoera politikoa izan dugu hizpide. Az-
ken aldaketek itxaropena piztu dute beregan.

TESTU AINHARA ZUAZABEITIA ARGAZKIAK JAGOBA MANTEROLA

alfonso sastre

Ez da nolanhiko urtea izan azkeneko hau Euskal Herrian politika mailan. Oraintsu jazo diren Lizarrako Akordioa eta ETA-ren su-etenaren aurretik HB-ko Mahai Nazionalaren kartzeleratzea eta Egin egunkaria eta irratia-aren itxiera ezagutu ditugu. Nolatan hartu zituen bi erabaki garrantzitsu horiek Espainiako Gobernuak?

Bi erabaki horiekin muturreraino iritsi zen MadrilC Euskal Herriarekiko duen politika erre-presiboa, guztizko jauzi kualitatiboa izan zen. ETA-ren bake proposamena kaleratzeagatik legala den indar politiko baten buruzagitza espetxeratzeak eta bi komunikabide legal ixteak jarrera arbitrarioa erakusten du, itxura juridikoa emanez azaldu nahi izan duten arren.

Egin egunkaria eta irratia-aren itxierekin adierazpen askatasuna urratu dela esan dute komunikabide

hauetako arduradunek, baita euskal gizartearen zati handi batek ere. Hori ukatu egin du, nolanhiko ere, Espainiako Gobernuak.

Adierazpen askatasunaren kontra egin dela ukatzea inozoa da, bi komunikabide horiek erabat legezkoak zirelako. Hala ere, Gobernuak beste itxura bat saldu nahi izan du, lehendabizi esanez Egin ez zela egunkari bat, propagandarako tresna baizik, eta gero adieraziz indarkeria bultzatzen duen propaganda tresna ixtea ez dela adierazpen askatasunaren kontra joatea. Asmakizun horren guztia-aren atzean dagoen amarrua hain da handia, ezin baita inondik inora eutsi edo mantendu. Egin egunkaria irakurri edo irratia entzun dugunok jakin badakigu ideia erabat desberdinak eta batzuetan kontraesankorrak biltzen zituztela, iritzi guztiak sartu direla beti.

Egin itxi eta hurrengo egunerako kalean zegoen Euskadi Información egunkari berria. Zure izena bertan ageri zen, gainera.

Egunkaria itxi ondorengo orduetan erreflexu azkarra izan zuten Egineko arduradunek. Hurrengo egunean bertan Egin ordezkatuko zuen egunkaria kaleratzea erabaki zuten. Ordu gutxi, ia minutuak bakarrik zituzten, halere, erabaki hori aurrera eraman ahal izateko modu legala topatzeko. Erabil zezaketen EKIN izeneko publikazio-elkarte bat bazela ohartu ziren Egin-eko zuzendaritzako kideak, eta

Mahai Nazionalaren kartzeleratzea eta Egin egunkaria eta irratiaeren itxiera aipatu ditugu. Baina beste gertakizun garrantzitsu batzuk ere izan ziren joan zen hilabetean bertan; Lizarrako Akordioa, Bartzelonako Adierazpena eta ETA-ren su-etena, hain zuzen ere. Zertan aldatu da orain egoera?

Gertaera horiek guztiak oso positi-

Orain ikusi da euskal gatazkaren muinean dauden arazoak oso sakonak direla, eta ez dutela zer ikusirik indarkeria erabiltzen zuen erakunde armatu batekin


boak dira, azkenean zerbait mugitu delako eszena politikoan. Lehen, dena geldirik zegoen, Espainiak Gobernuak betiko mezua errepikatzen zuen behin eta berriro, eta HB-k ere ideia berak aire-ratzen zituen, hitz berekin. Prozesu batean hori gertatzen denean ez da aurrerapausorik izaten. Hori dela eta beharrezkoa zen gertatu dena. Gizartean itxaropena sortu da gertakizun hauen ondorioz. Horretaz gain, garrantzizko beste gauza bat ere ikusi da ETA-ren su-etenen ondoren; Espainiak Gobernuaren jarrera. Estatuko agentei mozo-

Gizarteak ere zeregina izango du, bada, prozesu honetan.

Bai noski, zalantzarik gabe. Gizarteak bere funtzioa du eta hitza izan behar du prozesu honetan guztian, ahalik eta ekimen gehien bultzatuz. Gizartearen baitan alderdi politikoek garrantzi handia dute, eta horregatik oso interesgarriak dira datozen hauteskundeak. Gauzak dauden bezala, oso komenigarria izango litzateke ezker abertzaleak botu asko izatea. Ezker abertzaleak gora egitea eta alderdi abertzaleen erabateko presentzia oso ona litzateke dauden arazo politikoak etorkizunean behar bezala finkatu ahal izateko.

Urriko hauteskundeetako garrantzia handia ematen diezu, orduan.

Horrelaxe da, eta horregatik dei egin behar zaie hauteskontzientziaz ez direnei ere, oraingo honetan botoa eman dezaten. Gaur egungo egoera biziki berezia da, eta hau dela eta



horretxek bultza zezakeela ordezko egunkaria. Elkarte horretako lehen-dakaria ni nintzenez, deitu egin zidaten egunkari berriko mantxetan publikazio horren izena ipin zezaketen galdetzeko. Nik baietz esan nien, egunkariarekiko nire elkartasuna adierazteko modu egokia iruditu baitzitzaidan.

rrora erori zaie. Lehen indarkeriaren aitzakia erabili ohi zuten deus ere ez egiteko. Orain, su-etenarekin poztu beharrean larritu egin dira, gertatu dena kaltegarria izango balitz bezala. **Su-etena indarrean dago, bakean bizi al gara dagoeneko?**

Ez, hau ez da bakea. Askotan nahastu egiten dira bakea eta bake-

Egin egunkaria itxi eta hurrengo egunerako kalean zegoen Euskadi información egunkari berria, Alfonso Sastrenen izenarekin gainera.



izugarri ona izango litzateke hauteskundeetan parte hartzen duten herritarren kopuruak gora egitea. Bozka abertzaleak gora egin behar luke,

oro har, eta ezker abertzalearenak bereziki. Urriaren 25ean aldaketarik ez bada izaten ezuste desatsegina hartuko dut. Egun garrantzitsua izatea espero dut.

Nazioarteko bitartekaritzaren beharrik ikusten al duzu?

Orokorki ez. Badirudi prozesuak bere bidean aurrera egin dezakeela kanpoko laguntza zuzenik gabe. Baina bai, nolabaiteko babes politikoa behar dugu. Nazioarte jakinaren gainean izatea, hemen gertatzen denari buruzko informazioa zabaltea eta elkartasun keinuak jasotzea garrantzitsua da.

Zuk, antzerkigile izanik, nolako antzerkia idatziko zenuke euskal auzia gaitzat hartuta?

Drama bat egingo nuke. Dramak, amaiera tristea dutenean, tragediak dira, baina amaiera zoriontsuak dituzten dramak ere badaude. Nik idatziko nukeen antzerkia drama bat izango litzateke, oraindik tentsio une handiak biziko ditugulako. Baina amaiera zoriontsu, askatzailea izan dezake istorioak. Itxaropenez hartu dut hasi berria den prozesua. Ezkorak izan gai-

tezke askatasuna lortzeko bide honek, izan ditzakeen erritmoetan-edo, iraungo duen denboran, baina bestela itxaropentsu nago.

Hurrengo egunean bertan Egin ordezkatzeko lukeen egunkaria kaleratzea erabaki zuten. Ordu gutxi, ia minutuak bakarrik zituzten, hala ere, modu legala topatzeko

konponbideak

bai euskarari

EH
Euskal Herritarrok

bozkatu

GIZARTE ETXEETAN ZURE AISIALDIRAKO BEHAR DUZUNA AURKI DEZAKEZU

GIZARTE *etxeak* guztiori irekiak

Nahi izan arren egunero ezin daiteke jairik jai ibili; zoritxarrez, astean zehar ikastetxean zein lantokian zereginak bete behar dira-eta. Hala ere, hauek burutu bezain pronto gure aisialdiaz goza gaitetzke, eta non baino hobeto Gasteizko Gizarte Etxeetan ez bada. Kirol aukera anitzez aparte beste hainbeste ekitaldi interesgarri eskaintzen dira. Nolanahi ere, zure burua lau pareta artean kokatu nahi ez baduzu, zure kabuz beste inizatiba batzuk aurrera eramaten saia zaitetzke, Gizarte Etxetakoak bezain interesgarriak.



Aldabe izan da orainarte Udalak

Gizarte Etxeetako 98-99-ko kanpaina hasi da dagoeneko; joan den urriaren 5-etik aurrera, irailan aurkeztu kirol-eki-

taldiak, kultur- jarduerak eta bai sustapen bai osasun arloko hainbat ikastaro zein tailer martxan jarri zirenetik. Dirudienez, ez dago inolako

ireki duen azken Gizarte etxean

aitzakiarik etxean telebistaren aurrean geratzeko; gainera, kirol apur bat egitea edo irudimena zertxobait lan-tzea txerto egokiak izan daitezke

EL BAR Kutxi

eguneko

BEIRATE ESTUDIOA

MIKEL DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

PUBLIZITATERIK MERKEENA ETA ERAGINKORRENA

GASTEIZ

PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53

eguneroko ohikeriatik gure burua urrun dadin.

Udalak eskainitako ekitaldiei esker hilabete honetan Gizarte Etxeetako bizia berpiztu da atzera. Igerilekuetan haurrek euren lehenengo paladak eman bitartean, gimnasioetan, berriz, musika erritmoari jarraituz euren gurasoek, emakumezkoak gehienak eta gizonezkoak zenbait kasutan, begiralearen aginduei jaramon egingo diete dantza mota desberdinetako espezialitatean zein gimnasiako eskolatan. Ausartenek "El Zorro" irudikatuz ezpatarekin esgrima lehenengo klaseak jasoko dituzte eta beste batzuk, ordea, "Robin Hood"-en urratsei segitu nahian, beren punteria frogatuz dezakete geziak uztaiarekin botatz.

Horrela, kirol arloan 60 espezialitate baino gehiago aurkeztu dira ikasurte honetako kanpainan. Udal teknikariek azaldu zuten, oso harrera ona izan zuten gasteiztarren artean, 12 mila lekuztatutako 20 mila lagun interesatuta azaldu baitziren. Makina bat kirol mota -aerobic, igeriketa eta gimnasia, adibidez- berehala bete baziren ere, beste zenbaitetan, aitzitik, oraindik ere posible da izena ematea. Datu hauek guztiak hemen azaltzea zaila denez, hobe duzue Gizarte Etxe-etara hurbildu eta hor bertan axola zaizuen kirol motaz galdetzea.

Ekialdeko borroka-arten sekretuak, burua urpean izanda piragua bati buelta nola eman ikasi, gimnasia-ko tramankulu arraroekin giharreak landu, tenis, squash, esku-pilota, hockey...; denetarik hauta daiteke. Bestalde, adina ez da oztopoa kirolean aritzeko, hirugarren adinekoentzat ikastaro bereziak antolatu dira-eta Udaleko Kirol Saitetik.

Elbarri fisiko zein psikiko eta garun-paralitikoentzat ere kirol mota desberdinak eskaintzen dira. Ikus daitekeenez orok, nahi izanez gero, tokia dauka Gizarte Etxeetan.

KULTUR JARDUEREN POLEMIKA

Irailaren azken asteetan zenbait komunikabidek agertu zuten, honen inguruan berri bitxi bat zabaldu zen gure hirian: PSE-EE alderdiaren kritika Udal Sailaren kultur jardueren eskaintzaren aurrean. Dirudenez eta Andrés Sánchezek, PSE-EE-ko zinegotzia, GEU GASTEIZ gure aldizkariari azaldu zion moduan, polemika hiritar baten kezkatik sortu zen, hainbat kultur ekintza euskaraz baino ez zirelako.

Kultur jardueren egitaraua aztertuz, datu xebreak ateratu daitezke. Eskainitako 98 kultur gintzatatik 25 euskaraz izan dira, zeinetatik 9-k ez zuten parekorik gaztelerez. Aitzitik, gaztelerezko 73 kultur ekintzatatik 43-k ez zuten parekiderik euskaraz. Alabaina, komunikabideetan euskararen arazoa baizik ez zen islatu.

Andrés Sánchezek azaldu zuenez hiritar baten kexa jaso genuen, eta programa ondo aztertu ondoren, Udaleria gure salaketa eramatea erabaki genuen. Hizkuntzaren arra-

zoiengatik ezin muga daiteke kultur jardueren eskaintza, eta honekin batera, ekitaldietarako hiritar guztiok dugun sarbidearen askatasuna; tamalez, egun Gasteizko biztanleen gehiengoak Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntzetako bat baino ez daki. Arazoari irtenbidea emateko, hiritarren eskubideak berma daitezten, Andrés Sánchezen hitzetan, bi arrazoi hartu behar ditugu kontuan: alde batetik, kultur jarduerak eskaintzeko orduan, eskaria era egokiarekin ezagutu behar da; eta bestalderetik, ez sartzea inolako diskriminazio prozedura batean.

Oso zaila omen da guztion nahiak betetzea, hobe izango litzatekeela bi hizkuntzetan kultur ekintza guztiak eskaintzea, baina guztiok, euskaldunok baita erdaldunek ere, hau ezinezkoa dela onartu behar dugu eta batzuetan guztion eskubideak berma daitezten, hainbat alditan zenbait uko egin behar diogu. Edo ez?

Ikastaroen aniztasuna

Gorputza kirolaren bitartez zaintzea ona baldin bada, irudimena jarduera artistikoez lantzea kirola praktikatzeko bezain osasungarria suertatu daiteke. Kultur Sailak 98 kultur jarduera proposatu ditu, Gizarte Etxeetan ere garatuko direnak: literatura, zeramika, eskulangintza, marrazketa, antzerkia, magia, dantza, argazkilaritza, bideoa, zinema eta musika arloetan sailkaturiko jardueretan izena emateko epea kirolean bezala irailean bukatu bazen ere, geratu toki librean informazio gehiago Gizarte Etxeetan erdietsi daiteke.

Bestalderetik, Ongizate Sailak gizarte eta osasunarekin erlazionatutako eguneroko arazoei erantzuten jakiteko hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu. Mankomunitatearen kezkei erantzura ematen saiatuko dira, teknikak eta hamaika ezaguera interesgarri irakatsiz. Honetarako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara zuzen zaitezke edo bestela Gizarte Etxeetako Argibide Zerbitzuetara.

Salneurria eta epeak

Kirol eta kultur jarduera bakoitzaren hautaketaren prozedura irailean Gizarte Etxe guztietan hainbat zozke-

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

MIKO

izozkiak

PARRAL

SAN FRANCISCO KANTOLA 4 GASTEIZ
276833 01001

Astrolabioak
JARRAKI
SEGURANONIA
PINTAKAK
Asteletera
Kontakizketa
Tartakak
eeab

taren bidez burutu zen. Hau dela medio Udalak eskaintzen zituen ekin-tzak ordenean banatu ziren interesatuen artean.

Udal teknikariek azaldu zutenek ekitaldi hauek urte oso-rako planteatuta daude, halere urtean zehar ere egon bada-goa aukera izena emateko. Honetarako, lehen aipatu den legez, hobe da Gizarte Etxeetan bertan galdetzea.

Gainera, prezioak nahiko aukerakoak dira; jarduera mota eta honen maiztasu-naren arabera. Kirol arloko ekitaldietan Kirol Zerbitzuko bazkidea izanik beherapenak daude, eta kultur jardue-tarako eta gizarte-sustapenerako ikas-taroetan bi kuota desberdin daude, familia bakoitzaren diru sarreraren araberakoak.

Eskaintza zabalagoa

Dudarik gabe, Aldabe Gizarte Etxe-ko irekierarekin, Udalaren eskaintza hobeto banatu da Gasteizko auzoen artean. Alde Zaharreko bizilagunek zein Errota aldekoek pozez hartu dute Gizarte Etxe berri honen etorrera. Jadanik hamaika zentro daude eta aipatu diren ekitaldiez gain bestelako zerbitzu batzuk ere eratu dira; ludote-kak zein infoteka, hain zuzen ere.

Liburutegi, antzoki, fonoteka etab.-ekin topo egin dezakegu Gizarte Etxe-etako txokoetan, baina hau esateare-kin ez gara ezer berririk aurkitzen ari, Gasteizko jendeak ondo ezagutzen baitu zer dagoen eraikuntza hauen barruan.



Ugariak dira jadanik hirian zehar sakabanatuak dauden igerilekuak. Gizarte Etxeekin amaitu da egunero Mendizorro-tzaraino joan beharra

Zer egin?

Gasteizek, Gizarte Etxeek gain, beste hamaika aukera eskaintzen digu urtean barrena. Ezinezkoa da lerrootan denak batzea, baina pintzeladak badira ere, hona hemen besteak beste zen-bait kontu eta datu:

- Oraindik zailtasunak badituzu GEU GASTEIZ irakurtzeko, ez larritu!, etxe ondoan euskaltegi bat zure zain dago-eta. Berdin da AEK, IKA, Hegoalde ala Udaberria den. Kontua euskara ikastea da, ezta?

- Geu Elkartetik (Pedro Asua 2-3.-a- 945 22 21 53) ere zenbait egitasmo bideratzen dira: Geurekin Mendira taldea eta Euskarri Kirol Elkartea dira egun mugimendu gehien dutenak (tamalez, Euskarrik dituen taldeetan -gizonezkoen erregional mailako futbola, emakumezkoen

senior mailako areto-futbola, eta emakumezkoen zein gizonezkoen senior mailako saskibaloia-aurten behintzat ez dago tokirik).

- Asteburuan zer egin jakin ez eta oraindik gaztea izanik (ez haserretu hain gaztetxoak ez zaretenok), aisialdirako taldeetara hurbil zaitzeko, seguraski zure auzoan bat baino gehiago egongo da-eta.

- Gorputz ederra izan nahi baduzu, hiriko gimnasioetan profesional aholkuei esker soberan dituzun

Errege Atea 9

bar · restaurante · albéniz

GASTEIZ

plató

TABERNA

☎ 22 65 64

GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aitzogile (KUTXI), 27

Tfnoa: 26 07 10

GASTEIZ

'mitxelinak' di-da desager diezaz-kizuke. Baina honekin ez gehiegi liluratu, lan egin behar da-eta.

- Musika-kezakura izate-kotan, hona-ko tokietara jo dezakezu:

Musiketxea (San Antonio kalea, 14- 945 134590), Euskal Herriko musika-tresnak ezagutzeko aukera paregabea; Jose Orruño Kontserbatorioa (San Viator kalean- 945 288122); Luis Aranburu Musika Eskola (Zapatari kalea, 73- 945 289211); Herriko Eskolak (Barazar Mendatearen kalea, 1- 945 277645), non bateria, baxua, kitarra, txalaparta eta beste hainbeste instrumentu jotzen ikasteaz gain, bestelako ikastaroak ere, malabareak esaterako, antolatu baitira bertan.

- Dantzarako gogoia izanik, hona hemen aukera desberdinak: Traspasosen (Domingo Beltrán de Otorra kalea, 61-



945 279238/248358), dantza afrikar eta karibearrak, gaur egungo dantza,



dantza flamenkoa, sevillanak eta areto-dantzak, bai ume zein helduei zuzenduak ...; Tarima-n (Badaia kalea, 6- 945 141741), denetiko dantzak -Salsa, Merenge, Flamenko, Tango...-; Udaberria eskolan (Urugai kalea, 9- 945 244965), euskal dantzak eta musika; Indarra (euskal dantzak); Adurtza dantza taldea (euskal dantzak) etab. Leku hauetan guztietan zu mugiarazi nahi zaituzten irakasleak zain daukazu.

- Antzerkia gogoko baduzu Tae-ra (Errege-Erregina Katolikoaren kalea, 4- 945 285645) hurbil zaitezke, eta bertan bai umeentzat bai helduentzat euskaraz zein gazteleraz antolatu ikastaroez galdetu.

- Eta jada bukatzeko hona hemen Kirol Etxean (Zerkabarren, 5 behea) aurki ditzakezun kiroltako batzuk: betikoetatik aparte, automobilismo, badminton, beisbol, bilar, birlak, boxeoa, neguko kirolak, esgrima, aire-kirola, eski nautikoa, espeleologia, golf, halterofilia, herri-kirolak, hipika, borroka librea, elbarrientzako kirola, motonautika, motoziklis-

mo, padel, patinaje, euskal pilota, petanka, piraguismo, arraunketa, urpeko kirola, taekwondo, arku-tiroa, tiro olinpikoa, triatloi, bela, etab...

Nolanahi ere, hauxe duzue Geu Gasteiz aldizkariaren gomendioa: kaletik zoaztenenean, ez lurrera, zerura, etxeetara, gus-tukoei, ederrei, itsusiei, bitxie, txakurrei edota erakuslehiotara soilik begiratu!! Pare-taz inguraturik gaude eta horma hauek beren boza dute. Entzuniezu, irakur itzazu!!! Maiz informazio interesgarria dakarte-eta!!!

Dena dela, aisialdiaren inguruko informazio gehiago izateko-tan, eta Geu Gasteiz aldizkarian argitaratua izatea nahi baduzu bidalguzu!!! Zain gaukazu.

TESTUA:
RAUL SAEZ DE BURUAGA
ARGAZKIAK:
EDORTA SANZ



G
GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA
muntaiak elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna
GURIA
Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

J A T E T X E A
H I U A K
Aiztogile (KUTXA), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

OKO!
arropa eta osagarriak
NEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

19
geu gasteiz



Txabi Arnal Gil

Hainbat gairen ikasle, gehiagoren irakasle, kazetari, istorio kontari, ipuin kontalari, rock-zale... Desclée De Brouwer argitaletxearekin kaleraturiko azken bi lanak aurkezten dizkigu: *Rasa "veeka" aritzen zen ardia eta Hogeita-bost ipuin motz*

Gasteiz hiriaz maitemindua zaude. Hori ez da nik asmatutakoa, zuk zeuk kaleraturiko azken bi lanetan idatzirikoa baizik.

Bai, ala da. Ermua pinudiz inguratua dago eta dena berdea da, urte osoan zehar. Hona ikastera etorri nintzenezan lau urtarok

bereiztuta ikusteak txunditu ninduen.

Ermuako izpiritua ez zaizu zuri tokatu, hortaz?

Ezagutzen dut gertatu zena, eta gertatzen ari dena!

Euskaraz mintzatzen ez zen ardi nafar batez idatzi duzu. Arabarra izan al zitekeen?

Halaxe pentsatu nuen. Nire aitona, baina, artzaia zen eta liburuan ardiak egiten duen bide bera egiten zuen: Erriberatik Pirinioetara eta handik Bardeetara. Horregatik da nafarra ardia.

Zer gehiago, animaliak barnetegietan edo pertsonak ikuiluetan?

Badira animaliak barnetegietan baina, tamalez, pertsona gehiago dago karioletan preso... ulertzen didazu.

Politika linguistikoz ulertzen al dute haurrek?

Ez, ezer ere ez. Baina

Titxa teknikoa:

Ermuan jaioa, 1967. urtean. 31 urte.

17 urterekin Gasteiza ikastera joan eta bertan geratu zen.

Argitaratutako lanak:

- Gasteizko Katedral Zaharreko gargolak

(beste bi lagunekin batera)

- Donde los días nacen muertos

(bere anaiarekin Manurekin batera)

Hainbat ipuin eta bestelako istorio txapelketa irabazi ditu.



AINGERU EPALTZA
Sorginkerien liburu edo Katalin Kattalin-xorgin bilakatu zenekoa

Pamiela argitaletxea.
1998. 83 orrialde.

Iruñear kazetariak arbasoen mundu magikolari begirada botatzera gonbidatzen ditu gazteak eta ez horren gazteak. Katalin da liburuaren protagonista nagusia. Neska gogoz kontra ere mendi punta batean dagoen baserri zahar batera joan da oportetara gurasoak eta nebarekin. Duela hirurehun urteko istorio batek eta liburu batek goitik behera alda-



tzen dute opor aspergarririk izan behar ziren horiek, eta erratzen ez baina pilotan aritzeko pala baten gainean hegan egitera ere iristen da Katalin.

Hizkera biziko liburu laburrak Asisko Urmeneta, Naphartheid aldizkari-ko sortzailearen marrazkiak ditu.

EUSKALTZAINDIA...
Euskal deituren izendegia

Euskaltzaindia, Justizia Ministerioa...
1998. 279 orrialde.

Izendegiaren xede nagusia herritar eta Administrazioari euskal izenak ondo idatzi eta egokitzeke gida izatea da. Euskaltzaindiak hitzaurrean onartzen duenez, euskal filologiak oraindik ere badu zer ikertu gai honen inguruan, baina gizartearen eskaerari erantzun bat eman behar zitzaizkion liburua gehiago ez atzeratzea erabaki zuen. Inguruko erdarak (gaz-



telera, frantsesa eta gaskoiak) euskal izen abizenak idazterakoan zein ahoskatzerakoan nahikoa eragina baduten honetan liburu honek gehien entzuten diren abizenen idazkera egokiari buruzko zerrenda luzea bildu du, baita bigarren edizio zabalago bat agindu ere.

MTNEZ. DE MENDILUZE
Historia de la Resistencia Antifranquista en Alava.

Txertoa argitaletxea.
1998. 331 orrialde.

José Antonio eta Luis Martínez Mendiluze anaien liburuak bat baino gehiago harririkotako 36ko gerran Araban gertatutako sarraski eta istorio beldulgarriekin. Izan ere, batzuetan Araban, golpisten saiakera lehenengo momentuan garai-atera zela eta, ia gerraren eraginik ez zela pairatu ematen du.

Liburuaren meriturik handiena, garai bateko azterketa egiteaz gain,



kontatzen duenarekiko hurbiltasuna izango da ziurrenik. 60 urteko gehienek entzun eta bizi izan dutena biltzen du liburuak. Gasteiz eta Araban oso ezagunak diren pertsona eta familiei buruz hitz egiten du liburuak: Koldo Aristondo, Luis M^o Sánchez Iñigo, Alberto Agiriano...

errealitatea bai. Nafarroako euskararen arazoa Gobernuarena da eta horren errealitatea kondatzen badiezu ulertzen dute.

Haurrentzako edo helduentzako idazten, nola gusturago?

Arteari buruz idatzi nuen eta artea asko gustatzen zaidanez gustura aritu nintzen. Intsumisioaren alde nago eta gustura idatzi nuen intsumisioaz. Hurrekin lan egiten dut, haurtzandegi batean, eta erraza izan zait ere beraientzako idaztea. Nolanahi ere, ipuinok ez dira haurrentzako soilik, 8 urtetik gorako guztientzako, baizik.

Haurrentzako euskal literaturak etorkizunik ba al du?

Bai, eta asko. Haurrak gero eta gehiago ari dira euskal eredueta matrikulatzen eta eskaria handia da, beraz. Orain arte egin diren lanak beste hizkuntzetatik euskaratuak izan dira. Euskal autore gutxi dago eta, horregatik, editoreek arretaz hartzen dituzte euskaraz egiten diren lan berriak.

Asier Pz. de Karkamo

AUKERAZKO LIBURUEN AZOKA



Aprobetxa al duzu?

Hilaren 12an itxi zituen bere ateak. 18 egun zabalik, ehundaka eta ehundaka bisitari jaso, baina beste aldietan baino salmenta kopuru txikiago izan ditu aurtengo *Aukerazko Liburu eta Disko Azokak*. Izan ere eguraldi txarra present izan da uneoro Gasteiz hiribidean Euskal Herriko liburudenda ezagunenek jarriko saltokietan.

Hala ere Azoka hor egon da eta aurten bisitatu dugunok bueltatuko gara datorren urtean. Gasteizko Aukerazko Liburu eta

Disko Azokak xarma berezia dauka. Berdin-berdin inguratzen dira bertara kolezionista bitxiak eta merke erosi nahi duena, ez dakit zein bildumako liburuxka falta zaiona eta arre-na txikiari ipuia oparitu nahi dion umea.

Esperientzia ederra da; zer esanik ez bilatzen duzuna aurkitzen baduzu. Eta zaila da ez aurkitzea, bai kalitatez, baita kantitatez ere, Gasteizko Aukerazko Liburu eta Disko Azoka handi-handia baita. A.P.

IAN MCEWAN
Amor perdurable

Anagrama.
1997. 300 orrialde.

Ian McEwanen (Primer amor, últimos ritos, Entre las sábanas, Jardín de cemento, El inocente...) bederatzigarren lana maitasunari buruzko thriller bat da, edo zehazkiago maitasunak arrazonomendua eta zoramenaren bigedurutzear duen kokamenari buruzko hausnarketa.

Britaniarrak asmatutako istorioak sentimenduetan eta arrazoia utzartzen ditu lengoia ironiko batez. Joe eta Clarissa



bikote zoriontsua dira liburuen protagonistak. Denboraldi batez elkarrengandik aparte egon eta gero berriro elkartzen diren egunean personaia berezi bat ezagutzen dute kasualidadeak eraginda: Jed Parry jainkozaletan fanatikoa. Jed Joerekin erabat eta era obsesiboan maitemintzen da...

J.M. VELEZ DE MENDIZABAL
Samurai berria

Elkarlanean.
1998. 185 orrialde.

José M^a Vélez de Mendizabal aramaioarrak biografiaz eta saikerak idatzi ditu batez ere, eta horren aurretik bi espioitza nobela, *Yehuda* eta *Maskako gerezakiak*.

Bere hirugarren nobela beltzean Kosme Zubia da protagonista. Zubia espioia New Yorken dago lanean japoniarren enkargu bat betetzeko asmotan. Laster hasiko da bazterrak nahasten eta laister jarriko dira dantzan beste hainbat lagun: CIA,



FBIko agenteak, kazetariak, mafiazaleak...

Nazioarteko politikaren legeen menperatzea abilki josi ditu Vélezek espioitza nobela arin eta bizi hau idazteko. Bertan topatuko ditugu nahasian II. Munduko Gerrako sarrikiak eta egungo gertaerak. Guztien gainetik dirua eta boterea.

JUAN JOSE MILLAS
El orden alfabético

Alfaguara.
1998. 267 orrialde.

Kaosa, erabateko nahasmenaren eskutik ibilaldirio bat egitea proposatzen du J.J. Millás valentziarrak Alfaguaran argitaletxeko liburu honetan. Munduaren beste ikuspegi batera ematen saiatzen da liburua, trama adimentsu eta dibertigarri baten bidez.

Zer gertatuko litzateke letrak desagertzen hasiko



balira? Hitzen mundu ordenatu eta perfektuaz iraultza eragin du Millás-ek. Iraultzaren ondorioz hitzak lekuz aldatzen dira, bere esanahia eta gutti. Valentziarrak erronka jotzen dio irakurleari.

INIGO GURRUTXAGA
El modelo irlandés. Historia secreta de un proceso de paz.

Península Atalaya.
1998. 346 orrialde.

Iñigo Gurruchaga donostiar kazetariak Ipar Irlandan aurrera eramaten ari den bake prozesuaren ikuspegi bat eskaintzen du. Gurruchagak hurbiletik jarraitu du prozesua. *El Correoko* korrespondental lanak egiten baititu Londresen.

Liburuaren lehen zatia irlandar gizartearen ezaugarriak aztertzen ditu, gatazkaren aurrekariak gogoratu eta historia eginenez. Erdi Aroan hasi eta ezagunago diren pasadizoetara errepasoa ematen die. Era berean Ipar Irlanda eta Euskal Herriko gizartearen arteko konpara-



keta egiten du kazetariak. Ondoren bake prozesuaren beraren gaia jorratu du kazetariak. Eta, azkenik, Euskal Herrian balizko bake prozesuari buruzko hausnarketa egiten du donostiarrak.

Liburu beraz Ipar Irlandako bake prozesua da, baina Euskal Herriari begira beti. Eta gatazkari buruz argitaratu diren azken lan guztietatik gertatu zaiezen moduan, ETaren su-etenak herren utzi du liburua hau ere.

PATXI ZABALETA
Errolanen harria.

Txalaparta.
1998. 194 orrialde.

Patxi Zabaleta leizarrak literaturaren alor guztiak jorratu ditu: *Zorion baten zainak* eta *Ezten gorriak* olerki bildumak, *Nafarroako azken mariskala* antzezlanak, *Euskonomia ala Zoroastroen artalde* ipuin bilduma, *Ukoreka*, *Badena dena da* eta *Arian Ari* lanek osatutako nobela trilogia eta artikulu eta saio anitz.

Euskaltzainaren azken nobela ipuin bat da, euskaldunen hari mitikotik sortuta. Agian Euskal Herriko kondairarekin loturik dagoen lehen ipuina eta gure herrian zehar hainbeste eta hainbeste kokagunetan heda-



turik dagoena. Nobela honek ipuinari hartzen dio gaia, berez ipuin mitiko horren azterketa da.

Errolan Erdi Aroan Europa osoan kristauak eta gizarte zaintzen duen gizon-mitoa da. Baina Euskal Herrian etsaia da, bere erasoan porrot egiten duen etsaia erraldoia. Orreagako gudua eta Errolanen mitoa irudikatzen dira nobelaturik funtsean maitasun eleberria den honetan.

TIERRA
felpeyu
FONQASTUR



Kantauri
Itsasoak
elkartzen

gaitu. Galiziako folk taldeen azken uhinaren aztarnak (denon gogoan Carlos Núñezek Gasteizko jaietan izandako arrakasta, Zeledon lagun...) artean desagertu ez direnean, hona Kantaurian barna gugandik hain gertu egon arren apenas ezer iristen ez zaigun Asturiaseko musikaren berri.

Asturiasen folk musikak badu nork lantzen duenik. Beste talde ezagunago batzuen ondotik (Llan de Cubel guztien aitzindari, baina merezi du baita Nuberu, Ramón Prada, Muyeres, Xareu eta beste batzuk ezagutzeko), FELPEYU datorkigu Tierra izeneko diska freskoarekin. Asturiaseko bazterrak ibili dituzte taldekoek, bere luze-zabalean, herri tradizioko musika jaso eta egokituz. Hala ere, badira eurek sortutako bi doinu, baina horiek ere doinu

tradizionaletan oinarrituak. Herri tradizioen aldeko jarrera militantea da FELPEYUkoena, bereziki hizkuntzaren inguruan, eta abestu ere, herriko kantutegietan edo beste talde batzuen bertsoetan jaso bezala, bable edo asturieraz abesten dute. Bestaldetik, Asturiaseko tradizioko musikarien eta herrietako pertsonaia berezien aztarna jaso nahian jokatzeko dute. Taldeko kideen artean Xu-n Nel Expósito nabarmentzen da, Asturiaseko zenbait musika tresna berreskuratzen ari izaten baita. Bere eskutik entzuten dira Asturiaseko gaita eta, batez ere, eskusoinu diatonikoa, gure trikitixaren antzekoa.

Egia da gaur egun nahikoa dela "zelta" abizena ipintzea edozer gauza baleko bihurtzeko, baina halako diskoetan sartu gura ohi den giro lanbrotzua gordeta ere, merkataritzaren uztarrien menpe ez erortzeko gogo nabarmentzen zaie FELPE-

YUkoei. Erdiko bidea aukeratu dute musika egiteko, tradizio gordina eta erritmo komertzialen arteko oreka gordez. Udazken giroa arnasten da diskoan xirandiya, pasuc-is, saltÚn, muñeira (errotako lanak ez dira eta soilik Galizian egiten) eta beste-lako erritmoen artean.

Bukatzeke, eta anekdota gisa (baina bai esanguratsua!), taldekoek diskoaren liburuskari egindako bi ohar aipatuko ditugu: batetik, diska iazko apirilaren 14an bukatu zutela, Errepublikaren egunean, alegia; eta bestetik, Xunta pola Defensa de la Llingua Asturiana izeneko erakundeari eskaintzen diotela diskoa, asturieraren normalizazioaren alde egindako lanagatik.

Badela garaia hizkuntza gutxitudunok are egoera zailagoan daudenen aberastazuna ezagutu eta gozatzeko, ahal dela sagardo botila ondoan!!

axular 

Aurreko orrialdeetan eta hauetan argitaraturiko liburu eta diskoen kritikak Axular eta Arriaga liburudenden esku datozkigu

 **Arriaga**
Mezadenda



**Aurreruntz begiratu.
Gure esku dago.**


EMAN BOTOA



GASTEIZKO MITINA

urriak 18, igandea

eguerdiko 12:00etan

Principal Antzokia

Hizlariak: Jose Angel Cuerda, Juan Jose Ibarretxe, Xabier Arzalluz.

www.ibarretxe.com

CANTO GENERAL

mikis theodorakis (pablo nerudaren hizkiak)

ANTONIA



Disko hau ez da azken nobedadea, ez horixe, baina bai ikaragarriko monumentu musikala. Canto General oratorioa estreinako aldiz Txileko Santiagon ematekoa zen 1973ko urria inguruan, Victor Jararen musika zuzendaritzapean. Alabaina, hortxe izan zen tartean Pinocheten estatu-kolpea, hauxe eta beste mila herri-garaipen txiki guztiz zapuzteko. Bertsi hau Berlingen grabatua da 1989an.

Theodorakisek asmatu egin zuen Nerudaren hitzen zentzua harrapatzen eta sentsibilitate berberaz janzten: *Algunas bestias* eta *Vegetaciones* pasarte ikaragarri koloretsuak, instrumentazio oparo eta ezin beroagoa, Ameriketako naturaren indarraren ordain... *La United Fruit Co.* pasarteak ironia gogorra darabil kolonizazio ekonomikoaren aurka... Aipatzekoak baita *Los libertadores* zatiaren indarra, eta agian pasarterik ezagunena den *América insurrecta* hunkigarria, erraiak oilo-ipurdi bihurtzeraino-koa....

TEN

tomas san miguel

NEWS MUSIC



Tomas San Miguel gasteiztarak esperimentazio bide interesgarri bati ekin zion orain urte batzuk, baliabide garaiki-deak lurraren hatsari aplikatze-arena, betiko euskal tresna eta Estatuko abangoardiako musikariak elkarrekin uztartzearena. Emaiza oso estimatua da, eta ez soilik Euskal Herrian, baita atzerrian ere. Honen aurreko diska, *Lezao*, izan da bide horretan muturrera jo duena, ia-ia esan genezake lurraren indarren eta Mari jainkosaren laudorioa dela, eta horretarako musikariaren barnebarneko sentimendua hartu duela lehengai.

Ten, haren ondorengoa da, baina ez jarraipen zuzena... Handik hartzen du instrumentazioa eta antzinako bozkario batzuk, baina giro unibertsal batean murgiltzen ditu. Izenburua bera ere adierazkorra da: ten hitzak 'hamar' esan nahi du ingeleraz, eskaintza eta ematea da gaztelerez, eta 'oreka, egonkortasuna' euskaraz.

A LAMMAS LADYMASS

anonymous 4

HERNAN MUGA



Erdi Aroko Kristautasuneko ospakizun eta erritoei *liturgiko* izeneko zikloa osatzen zuten, urte sasoiari eta beraietako gertakari natural nekazarien araberakoa (zela soltzizioa, zela uzta edo ereite lana...). Ama Birjinari urtean zehar eskainitako festarik garrantzitsuen bat zetorren uzta garaiarekin (abuztuan), eta Erdi Aroko Ingalaterran baita "Lammass" izeneko festa zeltarekin ere. Abuztua, berriro ere garai oparo eta aberatsa, behin aurreko urtean gorde-tako jakiak-eta uztaierako guztiz agortu direlarik. Festa horiek goraiatzeko eresi eta mezak idazten zituzten Ama Birjinaren ohoretan.

Horieta lan batzuk jasotzen ditu Anonymous 4 emakumezko laukotea bikainaren konpakto honek: XIII. eta XIV. mendeko Ingalaterrako doinu goxoak, Erdi Aroko elizetako espiritualitatean murgiltzen gaituzten monodia eta polifoniak.

BI BESO LUR

alboka

ANTONIA



Kalean dugu 1994-an Txomin Artola, Josean Martin, Alan Griffin eta Joxan Goikoetxeak, musika tradizionala era instrumental eta akustikokoan lantzeko asmoz, sorturiko Alboka taldearen bigarren lana: Bi beso lur. Bigarren disko honetan, Juan Arriolak bete du Txomin Artola ezagunak utzitako hutsunea laukotea osatuz.

Lan polita osatu du Albokak, euskal tradizioa berrikuntzari inolako beldurrik izan gabe aberastuz. Alboka, gaita, kromornoak, kitarra akustikoa, bouzoukia, mandolina, zitarra, bibolina, akordeoia, ttuntuna... eta lau taldekideen ahotsak aurkituko dituzue disko honetan hainbat konbidatu bereziren laguntzarekin batera.

Hamalau kantu eder eta CD Rom pista bat, Aztarna zigiluak ohi duenea, non taldearen biografia, bideo klip bat, hainbat argazki eta euskal tresnei buruzko argibideak azaltzen diren. Hitzak biltzerakoan egin duten ahalegina ere aipatzekoa da, hiru perla tradizional berreskuratu baitituzte disko honetarako.

RUMOURS OF WAR. JUNGLE.

bilduma

OSPA HERRIALDEAN (G)A



Buruzagi zapatisten diskurtsoak, doinu etnikoak eta gaur egungo erritmo elektronikoak. Thomas Darnal Mano Negrako kide izandakoak koordinatu du lan hau. Taldea desegin eta gero, Mexikora joan zen Thomas eta bertan zegoela gertatu zen zapatisten altxamendua. Ez zuen aukera galdu nahi izan, eta hainbat diskurtso, manifestaldi eta Lacandona oihaneko soinu grabatu zituen. Parisera itzultitakoan, musika elektronikoa ikertzeko gogoia zuen eta P-18 kolektiboa osatu zuen antzeko proiektuetan murgilduriko jendea bilduz. Honela sortu zen Rumours of War, *etorkizuneko punk disko* bere esanetan. Bilduma honek antzeko beste batzuen aldean duen aldea eduki sozial eta politikoa da. Hainbat talde eta musikari dira diskoan parte hartu dutenak: Hubert Cesarion, Lumumba, GTI, DJ Sree, DKP, Ethnicians, Pushy!, La Hunda eta Denise. Eskura ezazue!

MANGU

mangu

OSPA HERRIALDEAN (G)A



Latinoa, Merengea, salsa, jazz ikutuak, rapa, ragga... Nabaria da bere aurkezpen diskoan zenbat bira egin dituen Dominikar errepublikan jaio, New York-eko Bronx auzoan hazi eta Miamin bizi den gazte honek. Hip hop eta antzekoak egiten omen zituen Manguk New York-en. Kritikariak diotenez, nabaria da Joe Falco ekoi zlearen lan artistikoa, musikariak eta programazioak egokiro orekatu eta Miamiko gaurko soinu ederki erakutsiz. Johnny Pacheco kantatutako Calle Luna eta Calle sol kantu latinoekin hasi eta gero rapeatzeari ekiten dio Manguk ingeleza eta gaztelania tartekatuz. Gonbidatuak ere ez dira nolana hikoak -Mother Superior rap kantaria, Beenie Man jamaikarra, Betty Wright soul abeslaria...-. Aberatsa eta beroa da ezbaierik gabe Miami musika labea eta Mangu, hango musikari arras interesgarria da.

gureak

Arabako taldeen azken ordua

Añana Euskaraz-en bizi izan genituen ezusteko pozgarri anitzetako bat izan zen. Aipatu festarako Xipri Larrañagak idatziriko abestia egokitu eta grabatuz gain, berau Gesaltzan zuzenean aurkeztu zuten, beste hiru kanta gehiagorekin batera. **EZ ESAN**-ekoek folk euskaldunean oinarritutako erritmo goxoak darabiltzate, doinu elektriko-derki janzten asmatu dutelarik. Garikoitz Knörr, kantaria, dugu Ez Esaneko izenik ezagunena (kanturako zaletasuna familiatik datorriko), baina esperientzia eta etorkizuna fifty-fifty-an azaltzen duten musikariz inguratu da. Beren lehen lana oraindik urrun dute, nahiz eta lortzen dutenean azkena izango ez dela argi daukagun (behar adina gogo eta grina, behintzat, badituzte).

Kalean da jadanik Mil A Gritos disketeke gasteiztarren azken egitasmoa. Lizarrako **FLITTER** taldeak *La vida ke kotxina* izenburua aukeratu du MAG-ekin argitaratzen duten bigarren CD-ri titulua jartzeko. Texas Factory estudioetan grabatua izan da, Tony Gates, Frank Ramirez eta Flitter-eko kideek beraiek ekoitzi dutelarik.

Duela zenbait hilabete Izadi editorialak Arabako Musika Gida kaleratu zuela idatzi genuen aldizkarian. Jakin izan dugunez argitaratzaileek uste zutena baino arrakasta hobe izan du herrialdeko musika taldeen berri jasotzen duen gidaren aurtengo aldiak. Arabako Musika Gidak herrialdeko 96 talderen informazioa (biografia, partaideak, kontaktatzeko telefonak...), erreportaiak, elkarrizketak eta musika ekitaldiak antolatuta nahi dituztenezko material gomendagarria jasotzen du. Gida, jadanik, ohiko lekuetan agortu da, baina Izadi editorialekin harremanetan jarriz gero bada, oraindik, eskuratzeko aukera.

Izadi editoriala

Diaz de Olano margolaria, 22.

945 24 52 69

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeko aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarrizketaren** bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzea lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea. **Euskararen** benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da.

Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

Orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



eusko
alkartasuna



LEHIAKETAK

Itzulpen laburrak. Arrasateko AED Elkarteak Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren XII. Sanketarako deialdia zabaldu du. Gai librean, munduko edozein hizkuntzatatik itzultako idazlanak aurkez daitezke. Bi sari izango dira, 200.000 eta 100.000 pezetaokoa. Lanak bidaltzeko epea urriaren 31an amaitzen da. Xehetasun gehiago eskatzeko eta lanak bidaltzeko hona hemen helbide nau.

AED Elkarteak - Jokin Zaitegi Sariaketa
Pablo Uranga kalea, 4 behea.
20.500 Arrasate (943 77 12 28)

Argazki lehiaketa gazteen-tzat. Arabako XI. argazkilarie gazteen lehiaketa antolatuta du Arabako Argazkilarie Elkarteak. Foru aldundiko Kultura eta Euskara Sailak babesten duen ekimen honetan 12 eta 19 urte bitarteko arabarrek har dezakete parte, hala bakarrik nola taldeka, ikastetxe, Institutu edo gazte Erakundeen bidez. Gara librea da eta 1998ko urriaren 23an bukatuko da argazkiak aurkezteko epea. Edozein teknika balio du.

Arabako Argazkigintza Elkarteak
1.672 Posta Kutxatila.
Pedro Asua kalea, 2. 945 24 39 22

Ipuin lehiaketa beltza.

Mutrikuko Jangek/n Me gazte elkarteak Gaba Beltza I. Herio Ipuin Laburren lehiaketa antolatuta du. Lehiaketara aurkeztu nahit duten autoreek honako gaiaren inguruan idatzi beharko dute: heriotza. Lanak onartzeko epea 1998ko urriaren 20an amaitzen da eta sari bakarra emango da, 50.000 pezetakoa. Lanen luzera, bidali beharreko

informazio eta bestelakoak ezagutzeko hona hemen telefono zenbaki bat.

Jangek/n Me gazte elkarteak.
943 60 41 07 (Harkaitz), Mutriku.

Gasteizko I. Kometa

Jaialdia. Mendozako *Lau Haietara* Arabako Kometazaleen Elkarteak I. Kometa Jaialdia antolatuta du. Kometak hegartzeko ikastaroak, gailu estatiko eta pilotagamen erakusketak, kometa lantegiak eta musika girotea izango dira, besteak beste, Jaialdiko ekitaldiak. Partehartzaleen artean kometa eta bestelako oparien zozketa egingo da.

Urriaren 17 eta 18an.

Salburuako zelaietan

Lau Haietara. 945 22 81 94

IBILBIDEAK

Montehermosoko ibilbide gidatuak. Larunbatetan arratsaldeko 6retan eta igandeetan eguerdiko 12etan. Talde edota ikastoletako bistentzako dei aurretik honako telefonora:

945 16 18 32

<http://www.vitoria-gasteiz.org>

MUSIKA

Opera euskaraz. Leidor aurrean estreinatuta eta sekulako arrakasta eta kritika bikainak izan dituen euskarazko opera berria da. Eduardo Mocoeroak eta Emeterio Arresek idatzia, Mary Downig eta Izaskun Arruabarrenaren ahotsak ditu aipagarri. Musika Irungo Orkestra Sinfonikoak eskeinitu ditu, Juanjo Okonen zuzendantzapean.

Urriak 24, larunbata, 20:30etan.

Besaulkia-Anfitheatroak: 2.250/1.350.

Principal Antzokia (945 16 10 45)

ANTZERKIA

Tantaka, binaka. Bemiz datozkigu Tantakakoak, iaz *El Florido Pensilekin* izandako arrakasta errepikatu asmoz. Kasu honetan Donostiako Printzipala bi egunez goraino betetzeko lortu zuen *Dakota* antzez-lana dakarkigute.

Urriak 15, osteguna, 20:30etan.

Besaulkia: 1.500 Anfitheatroak: 1.000.

Principal Antzokia (945 16 10 45)

Horretaz gain, hilaren 25ean, igandean, Aitaren Jokoa haurrentzako lana antzestuko dute. Umeen munduan zehar eginiko bidaia da Aitaren Jokoa.

Urriak 25, igandea, 18:00etan.

Sarrera bakarra: 900.

16 urtetik beherakoentzat: 450

Txontxongiloak. La Mar de Manionetas, Marta Bautistak zuzendutako txontxongilo taldeak Mari Errauzkin ipuina antzestuko du Ipar-Arriaga antzokian, Arriaga Gizarte Etxean. Lau urtetik gorako haurrentzako gomendatua da antzeslana.

Urriak 31, larunbata, 18:00etan.

Sarrera bakarra: 900.

16 urtetik beherakoentzat: 400

NATURA

Arabako Natur Institutua.

Merezitako oporrak hartu ostean bueltan ditugu bemiz ANIkoak. Hilabetea *ur gezatako alger buruzko ikastaro* batekin hasiko dute, sesio teorikoak (hilaren 9, 10 eta 11n) eta sesio praktikoak (larunbata 12an) barne. Irailak 19an, bemiz, Gasteizko mendietan

barrena ibilbidea egingo da, urtaroro egin ohi dena eta udazkeneko urtarora dago-kiona. Hilaren amaiera aldean III. Marrazti naturalistari buruzko ikastaroa antolatuta dute. Sesio teorikoak hilaren 23an eta 25ean izango dira, praktikoak, bemiz, 26an eta 27an.

Arabako Natur Institutua

Pedro Asua Kalea 2, 3. solairua.

Telefono eta faxa: 945 24 66 06

erakusketak

MONTEHERMOSO.

oriixe da Montehermosoko Oihanederra aretoak irailaren 11ra bitartean jasoko duen erakusketa. Gasteizko Jazzaldiko argazkiak, hiri-ko hainbat maketa, bi CD-Rom eta Udal Turismo Bulegoak eginiko bideo bat izango dira ikusgai.

KORDOI ETXEA.

Arabako historiaurreko faunaren inguruko erakusketa deigarria da, Arabako Natur Institutuko X. urteurrena dela eta, azaroaren 5era bitartean Aitzogile kaleko Kordoi Etxeak dakargun ekitaldia. Koaternario Aroko Faunaren inguruko mostra da, honakoan, Arabako Natur Institutuak dakarkiguna.

MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA

LA RIOJANA

jatetxea
on egin!

bokatak, pintxoak,
kazuelatxoak

Aitzogile (KUTXA), 33 tfnoa. 25 02 39

OGI
EORRI

xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

EUSKADI ABERRIA DA

Euzko Alderdi Jeltzalea

Euskadi aberria da. Euskal gizarteak, berez, bera zedarritu eta bereizten dituzten zantzu berezi eta bakarrak bere baitara biltzen ditu. Eta horren lekuko dira beraren hizkuntza, beraren kultura, demokraziaren alde historian zehar agertu dituen balioak eta eskubide zibilak, bai eta bere burua gobernatzeko duen tradizio luzea, eta bere baitan elkarbizitzako eredu berezia hezurraitzea ere.

Aberri legez, gizarte gisa eta elkarren partaide diren pertsonen talde legez, eta elkarren Historia eta etorkizuna dituzten legez, edozein herrik bere hiritarrentzat eta hiritarrekin dituen eskubide eta betebeharrak guztiak dagozkio Euskadiri.

Horregatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak konpromisoa hartuta du sorreratik bertatik Euskal Herriaren nortasunaren ezaugarriak defenditu eta garatzeko eta, horrenbestez, haren burugobernuko eskubide historikoak defenditzeko ere.

Konpromisoa du sorreratik bertatik -orain ehun urte baino denbora luzeagotik- honako hauek sendotu eta garatzeko lanarekin: haren nortasunaren ezaugarriak, haren ekanduak, haren hizkuntza -euskara-, haren kultura, haren izaera eta lankera, haren gizartekoitasuna, norbanakoen eskubideen defentsa eta abar.

EAJ-PNV ehun urteko alderdi jeltzalea da, bere herria, beronen Historia eta hori ahalbideratzen duten pertsonak sinesten dituen.

Abiaburu bat dugu: aberri batekoak gara; berarenak gara; erkidego batekoak gara, guzti-guztiok nahi eta etorkizun berberak ditugularik elkarrekin; bada, abiaburu hori ez dago lehengo gizaldian lotuta, ez da higiezina eta,



hortaz, ez dago iraungita. Aitzitik, euskal jeltzaletasunaren demokrazi ekandua eta haren gizartekoitasuna, eta guztiak baterabiltzeko duen jorana hamarkada askotan zehar bera bereizten izan duten ezaugarrieta-ko batzuk dira.

Eta hori horrelaxe da, zeren EAJ-PNV beti izan da euskal gizartearen anizkoitasunaren jakitun. Anizkoitasun horrekin loturik, haren politika eta jarduteko, egitarauak euskal gizarte batera bildu eta bilbatzera jotzen izan dute eta, gaur egun ere, jotzen dute; horretaz gainera, egitarau horiek gizarte eta ekonomiaren garapen eta aurrerakundearen oinarriak sustatu eta sendotu nahi dituzte.

Jeltzaletasuna ireki, jasankor eta baterabiltzailea da, eta horixe da EAJ-PNV zehaztu eta bereizten duen ezaugarria; bada, jeltzaletasun horrek badu geroaldi eta etorkizunik, bai eta hiritar guztiei eskaintzeko proiekturik ere, ekonomia, gizarte eta kulturaren alorretan, hiritar horek euren burua jeltzaletzat hartu zein ez hartu; eta hori halaxe da, proiektu horrek ez duelako inortxo ere baztertu nahi.

Gaur egun azaltzen den eztabaida, gehienbat, ekonomiaren gainekoa da. Europa eraikitzeko prozesua hurrerean dago eta moneta bakarra laster sortuko da; horrek guztiak gu ukitu egiten gaitu. Garrantzi handiko eztabaida da, eta garrantzia du historiaren ikuspegitik, eremu guztietan sortuko dituen aldaketa eta eraldakuntza guztiak direla-eta.

Hala eta guztiz ere, etorkizun hurbilean, Europari buruzko eztabaida ez da ekonomiari buruzkoa izango, ez bada kulturaren ingurukoa, eta hiritarren erkidego naturalak izango ditu eztabaidagune; izan ere, horixe izango da modu bakarra beharrezko gogoia sortzeko, Ekonomia eta Monetaren Batasunaren prozesuak berak arrakasta izango badu.

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke
**TXAPELARRI
TABERNA**
Aiztogile (Korxi) kalean

Argazki - Estudio
Eramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

KANPAINA!!!



ZER DA EUSKAL HERRITARROK

Arabako Euskal Herritarrok

T rantsizio garaitik eta, beraz, herri honi inposatutako markoa (Foru Hobekuntza eta Estatutua) martxan jarri zenetik hogeitun urte pasa direnean, Euskal Herri osoarentzat burujabetasunean oinarritutako marko berri bat aldarrikatzen duten gizonak eta emakumeak gara.

Izaera abertzalea eta ezkerzalea dugun herritarrok gara; hau da, gure herriarentzat burujabetasunean oinarritutako proiektu bat defendatu eta justizia sozialean oinarrituriko gizartea eraiki nahi dugu.

Horixe da Euskal Herritarrok. Herri Batasuna, Zutik zein EAE-ANV-k, edo Euskadiko Ezkerrako buruzagi ohiek babesa eman dioten hautesle-elkartea, hain zuzen ere. Parte hartzaileen artean ere, ELA, LAB, ESK, EILAS edo nekazaritza arloko EHNE sindikatuetakoa kideak daude, emakumeen mugimenduen ordezkariak, EHGAM-ekoak, mugimendu ekologistakoak, GOGOIA Plataformakoak, Gizarte Gutunekoak, gazte erakundeetakoak, elizaren sektoreetakoak, gure kulturaren pertsona ospetsuak, euskararen ingurukoak, euskal kirolaren ingurukoak, Senideak elkarteak,...

Gure historia luzeak eta azken hogeitun urtetako balantzeak ezin diezagukete emaitza ilunagorik eskaini. Euskal Herria hiru zatitan banaturik, burujabetasuna ukaturik eta horren ondorio gisa, gure hizkuntza, kultura eta ekonomiak arazo ezin larriagoak dituzte aurrera ateratzeko eta indartzeko. Hau horrela izanik, beste egoera zein marko batera abiatu beharra dago euskal demokrazia eraikitzeko.

Euskal Herritarrok osatzen dugun sektore desberdinak aspaldian gabiltza batera lanean. Aspalditik elkarrekin nahi dugun Euskal Herriaren oinarriak adosteko. Horren beldur PP-k bere eraso errepresiboa azkartu egin zuen, Euskal Herriaren alde lan egiteko prest zeuden indarrak neutralizatzeko asmoz, Mahai Nazionalaren kartzularatzea horren adibide izan zelarik. Geroago EGIN-en itxierarekin batera, bazetozen beste mota bateko eraso errepresiboak, besteak beste, HERRI BATASUNA-ren ilegalizazioa. PP-ren benetako aukera bat zen hori, HERRI BATASUNA hauteskundeetan aurkez zedila galaraztea, HERRI BATASUNA une historiko



batean ordezkariak gabe uztea, alegia. Beraz, egoera aztertuta eta azken hilabeteotan, sozial, sindikal, kultural eta politikoki ematen ari ziren dinamika berriak ikusita, bidegurutze honetan Ezker Abertzaleak sektore desberdinei apustuak eskaini behar dizkiela pentsatu du. Hortaz, lehen helburuaz gain -Partido Popularraren jokaldia oztopatzea-, eta gizartean sortzen ari ziren dinamika eta faktore berriak bideratzeko, hauteskunde

alorrean elkarlan-gune gisa sortzen da Euskal Herritarrok elkarteak.

Ezker Abertzalearen urte askotako lanak bere fruituak eman ditu. Egoera berri baten atarian utzi gaitu, itxaropenez gainezka, arrisku batzuekin, baina argi izan behar dugu egoera honetan Ezker Abertzalea motorea dela, dinamizatzailea izan behar duela. Lizarrako Adierazpenarekin, Euskal Herritarrok elkarteak eta gainerako mugimenduek sortu duten itxaropenarekin, Euskadi ta Askatasuna erakundearen ekimenak eragindako lurrikara politiko-sozialarekin, Ezker Abertzaleak indarrak biltzera joan behar du, eta hurrengo hilabeteotan, politikoki eta sozialki aldaketa bideratuko duen agentea izan behar du.

Euskal Herritarrok bozkatzea bake eta askatasunean oinarritutako geroaren alde bozkatzea da. Euskal Herritarrok bozkatzea konponbide demokratikoaren alde bozkatzea da. Gure herria desitxuratzeko ezarri diren mugak desagertzearen aldeko botoa da. Geroaren protagonista izan nahi duen jende kontsekuentearen botoa da. Euskal Herritarrok bozkatzea gizarte-justizia, euskara eta euskal eskola publikoaren alde bozkatzea da, Euskal Herritarrok bozkatzea euskal kirolariak munduan dagokien lekua izatearen alde bozkatzea da. Ingurugiroarekiko errespetua duen garapen orekatuaren aldeko botoa da. Azken finean, Euskal Herritarrok bozkatzea Euskal Herriaren geroaren aldeko apustua egitea da ilusioz, itxaropenez eta lan handiz.

Hori dela eta, denok batera botoa emateko garaia heldu da. Hautestontziak ilusioz eta itxaropenez betetzeko garaia heldu da.



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

25
gure gazteak

III. MILURTEKOAREN ALDEKO APOSTUA

Patxi Ormazabal / Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua

995eko urtarrilean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren buru izateko erantzunkizuna hartu nuenetik, oinarriak jarri ditugu gure Herria abiapuntu baldintza onetan heldu dadin III. Milurtekora.

Legealdi honetan zehar, lurraldearen, ingurugiroaren etabarren ikuspegi argia ezezik, negoziazioaren ikuspegi praktikoa ere duen talde baten razionaltasuna eman diogu Jaurlaritzari Eusko Alkartasunatik, Jaurlaritzaren kideen arteko jarrerak hurbilduz.

Horrela, duela lau urte hartu genituen konpromezuak bete ditugu, akordio garrantzitsuak hartuz blokeatuta zeuden zenbait gairi buruz, hala nola Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), lurralde erakargarri eta solidarioagoa eraiki ahal izateko erreferentzi-esparrua dena, inguru sozial eta ekonomiko berriaren eskariei egokituia espazio europarrean.

Etxebizitzaren arloan, arazo handi eta konplexua izanik, eskura zeuden baliabideak razionalizatzea jarri genuen helburu eta horren ondorioz Etxebide, Etxebizitza Bideratzeko Egitasmoa idatzi genuen, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak izan duen lehenengo plana etxebizitza arloan. Egi-



tasmo horrek jardueran linea batzuk finkatzen ditu, bai eta erai-kuntzarako plana ere, jarduntze-eremura banatuta. Gainera, Etxebizitza Bideratzeko egitasmoa bete eta herritarren gogobetetasuna hobetu nahian, "Etxebide" Etxebizitzen Euskal Zerbitzua jarri dugu jardunean, herritar guztiei dirulaguntza ofizialen, sustaketan eta etxebizitza arloko beste edozein gairen berri emateko zerbitzua.

Ingurugiroaren gaian, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrari buruzko akordioak, eskumenak transferitu zirenetik 18 urte igarotakoan, amaiera eman dio esparru egonkor, argi eta bidegarria egiteko gai izan garen etapari, konplexua bada ere "etorkizuneko" etorkizuna eraginkortasunez eraikitzen utziko diguna.

Azken batean, Eusko Alkartasunak, Eusko Jaurlaritzan egiten ari den lanetik, gure Herria modernizatzeko beharrezkoak diren pausuak eman ditu, pragmatismo eta tinkotasunaren arteko oreka lortu ezezik, jarduera zehatzen bitartez, gure autogobernua defendatzeko beharra sendetsi ere egin dugulako, nahitaezko tresna baita proiektu progresista horren oinarriak finkatu eta gure seme-alabei bizitzeko leku hobea uzteko.



IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 23 19 33

GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea **GASTEIZ**



ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA		HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea	Argibideak eta Erregistroa Emakumeentzako Zerbitzua Errolda Euskara Zerbitzua Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	16 11 88 16 13 45 16 11 06 16 15 22 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (<i>Villa Suso</i>)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4	13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91

CASA DE CULTURA



KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

hitza kultur etxean

urriak 22, osteguna

Bizkaiko Kopla Zaharren Antologia

Xabier Amurizak kantatua

azaroak 10, asteartea

Folk-rock emanaldia

Mikel Telleria

azaroak 26, osteguna

Apoaren edertasuna izeneko emanaldia

Koldo Izagirre eta Joseba Tapia

abenduak 10, osteguna

Munduaren neurria

Anjel Iertxundi eta Felipe Barandiaran

ekitaldi guztiak arratsaldeko 8retan hasiko dira